

**KOMUNITATE ISLAMIKOEKIN TOPAKETA / ADOS BATZORDEA
ENCUENTRO COMUNIDADES ISLÁMICAS / COMISIÓN ADOS**

2018-04-14 Lehendakaritza 14-04-2018

Lehendakariaren hitzaldia-Discurso del Lehendakari

Egun on, ongi etorri eta eskerrik asko gurekin izateagatik. Gaur, elkarrekin ADOS Batzordea osatzen eta martxan jartzen dugu.

Batzordea hau elkarlanetik sortu da eta elkarlanerako sortzen da; oinarri sendoen gainean eraiki nahi dugu bizikidetzeta, aniztasunaren balioa onartuz eta eskertuz:

Ahmed, Aziz, Carlos, Hajar, Jonan, Josune, Lide, Loli, Lucía, Maribel, Moulay Driss, Nekane, Othman eta Rehmat gure Herriaren aniztasuna islatzen duzue; baita ere gure Herriaren etorkizuna elkarrekin eraikitzeko nahia eta xedea.

Muy buenos días y gracias por su presencia en este encuentro de importancia y proyección estratégica para la defensa de principios como el pluralismo y la paz.

Este martes el Consejo de Gobierno ha aprobado el “Programa de Actuación del Gobierno Vasco para promover la convivencia junto a la comunidad islámica vasca.” Se trata de un documento marco que traslada un doble espíritu:

- Una voluntad política clara, formulada en positivo y orientada a promover la convivencia; y
- Una determinación firme, asentada en un compromiso compartido con los derechos humanos, para hacer frente tanto al terrorismo internacional de pretexto religioso, como a cualquier expresión de racismo, xenofobia o islamofobia.

El Programa de Actuación aprobado contiene un ambicioso plan de trabajo. Hoy damos el primer paso con la creación de esta Comisión Asesora ADOS para la Colaboración con las Comunidades Islámicas de Euskadi.

Euskadiko Komunitate Islamikoekin Lankidetzan aritzeko Aholku Batzordea sortu dugu gaur. ADOS Batzordea deritzo, eta lagun izango dugu elkarriketaren, akordioaren eta lankidetzaren bidean.

Batzordearen hazia izan da, hain zuzen, Eusko Jaurlaritzaren, erakundeen eta Euskadiko komunitate islamiarretako kideen arteko topalekua eta lankidetzak. Eskerrik asko, bihotz-bihotzez, zuen jarreragatik, ahaleginagatik eta lankidetzan aritzeko prest egoteagatik.

Idea berak mugitzen gaitu: bizikidetzak, alegia. Izan ere, elkarrekin eta bakean bizi da gure orainaren gakoa, baina baita etorkizuneko ere.

Esta Comisión Asesora ADOS ha nacido del encuentro y el trabajo compartido entre el Gobierno Vasco, las instituciones y las personas pertenecientes a las comunidades islámicas de Euskadi que nos acompañan. Agradecemos su disposición y dedicación.

Compartimos una idea motriz: el presente y el futuro es convivir. Convivir en el reconocimiento y la integración de la pluralidad. Convivir en el respeto y la defensa de los derechos humanos. Esta idea sencilla nos une por encima de cualquier otra diferencia. Vivir juntos y en paz es posible sobre esta base.

Este es el proyecto que queremos contribuir a crear, fortalecer y divulgar juntos desde la Comisión ADOS.

Somos muy conscientes de la dimensión del problema que afrontamos. El terrorismo internacional de pretexto religioso busca provocar el descarrilamiento del pluralismo en que se asienta nuestro marco de convivencia.

Su objetivo es que no podamos vivir juntos en paz. Su objetivo es desencadenar la perversa espiral de división, enfrentamiento, violencia y destrucción.

Nuestra respuesta es radical, se asienta en las raíces y en la fortaleza fortaleza de la unión, colaboración y compromiso con la paz, la convivencia y los derechos humanos. Nuestra respuesta es elevar a la máxima categoría esta idea básica: vivir juntos y en paz.

Esta determinación tiene un carácter prerreligioso y prepolítico. Ninguna religión puede ser utilizada para defender el terrorismo. Así lo han puesto de manifiesto las aportaciones que desde las propias comunidades islámicas se han realizado al Plan de Actuación del Gobierno Vasco: *“Los textos del Corán no pueden ser invocados para legitimar el recurso a la violencia o al terrorismo.”*

La respuesta más eficaz es defender, promover y compartir un proyecto de vida basado en el pluralismo.

Euskadiko komunitate islamikoak euskal gizartearen parte dira, parte zarete. Gure gizartea anitza dela erakusten duzue.

ADOS Batzordeak gorpuzten du gure erantzuna zein den: erlijioen eta kulturen arteko zubiak eraikiz, errespetuan, giza duintasunean eta aniztasunean oinarritutako bizikidetzaren partekatzea.

Elkarrekin egin behar diegu aurre arrazismoari, xenofobiari eta islamofobiari. Elkarrekin egin behar diegu aurre, baita ere, nazioarteko terrorismoari. Elkarlanean dihardugu elkarrekin eta bakean bizi nahi dugulako. Elkarlanean dihardugu gizarte beraren parte garelako eta aske izan nahi dugulako; elkarrekin aske.

Esta Comisión ADOS nace para compartir, de un modo interreligioso e intercultural, un marco de convivencia basado en el respeto a la dignidad humana y el pluralismo.

Trabajamos juntos porque queremos vivir juntos y en paz. Formamos parte de la misma sociedad y queremos ser libres juntos. Las comunidades islámicas en Euskadi forman parte, formáis parte, de la realidad plural de la sociedad vasca.

Ponemos en marcha una estrategia compartida que responde al reto de progreso cívico, social y político en Europa y en el mundo, a la altura de las exigencias que representa el siglo XXI para la humanidad.

Esta es nuestra contribución para fortalecer el compromiso con el pluralismo, la convivencia, los derechos humanos y la paz. Este es el bien común que nos convoca en esta Comisión ADOS.

Gaur ADOS Batzordea martxan jarri dugu bizikidetzaren bidea adostasunaren ildotik jorrazteko, denon artean elkarlanean.

Eskerrik asko!